

Hernaniko alkateak, eman zuen honako dekretu hau:

2025/2534 **DEKRETUA**

DEKRETUA. Hernani, 2025-10-21

2026 urtera begira, ezkontzak udalean ospatzeko eskaerak jasotzen ari dira.

Ezkontza egutegia kontuan hartuz eta ezkontza zibilak egiteko zerbitzu publikoa arautzen duen udal ordenantzak, 2004-10-21ean onetsitakoa, eta arau horren aldaketa 2017ko azaroaren 28an onartutakoak, bere 4 artikuluan ezartzen zein izango den ezkontzak udalean egin ahal izateko egutegi eta ordutegiak:

«**4. artikulua.** Alkateari edo berak eskuordetza eman dion korporazioko kideari dagokio, udalean ezkontza zibilak egiteko eskumena. Ezkontzak egun eta ordu hauetan egin ahal izango dira:

Astelehenetik ostiralera	10:00 - 14:00.
Hileko lehen eta hirugarren larunbatean	11:00 - 13:00».

Ordenantza beraren 11 artikulok, bestalde, hau adierazten du:

«**11. artikulua.** Alkateari dagokio ordenantza honek jasotzen ez dituen alderdiak garatzea eta ezkontzak ospatzeko ezarritako data aldatzea justifikatzen duten ezinbesteko kasuak baimentzea.»

2026ko egutegia aintzat harturik, ezkontzak Hernaniko udalean ospatzeko ezkontza egutegian zenbait aldaketa egitea erabaki dut

Hori guzti hori kontuan harturik

ERABAKITZEN DUT:

Lehena. Hernaniko Udaletxean 2026ko ezkontza egutegia zehaztea.

Bigarrena. Astelehetik ostiralera, udaletxean lan egunak direnean, ezkontza egutegia mantentzea 10:00etatik 14.00tara.

Hirugarrena. Larunbatetako egutegiari dagokionez Hernaniko Udaletxean ezkontzak ospatzeko 2026 urteko egutegia zehastea, ordutegiak 11:00etatik, 13:00tara izango direlarik:

-Urtarrilak 3 eta 17

-Otsailak 7 eta 21

-Martxoak 7 eta 28 (martxoak 21aren ordez)

-apirilak 11 (apirilak 4arten ordez) eta 18

-maiatzak 9 (maiatzak 2aren ordez) eta 16

-ekainak 6 eta 20

- uztailak 4 eta 18
- abuztuak 1 eta 22 (abuztuak 15aren ordezt)
- irailak 5 eta 19
- urriak 3 eta 17
- azaroak 7 eta 21
- abendua 5 eta 19

Laugarrena. ebazpen hau Hernaniko udaleko webgunean eta Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzea

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkatek agindu eta sinatu du, eta neuk, Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoak, udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

